

2019/05/15

**KOD.: A221**

**NORMALIZAZIOA (EUSKERA)**

***LEHEN ARIKETA  
BIGARREN PROBA***

***Denbora, gehienez: 100 minutu  
Galderak: 100.***

EREDUA:	<b>D</b>
---------	----------

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredua.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
  - Asmatuak: 1,00
  - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Eredua marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

**Eskerrik asko zure laguntzagatik**

**1 ZEIN ERAKUNDEREN ARDURA IZANGO DA EUSKARA IDATZIAREN BATASUNA ETA NORMALIZAZIOA, EUSKARAREN ERABILPENA ARAUZKOTZEKO OINARRIZKO 10/1982 LEGEAK AGINTZEN DUENEZ?**

- 1a) Euskaltzaindiarena.
- 1b) Eusko Jaurlaritzarena.
- 1c) Eusko Legebiltzarrarena.
- 1d) Euskal Herriko Unibertsitatearena.

**2 ZER DA ZERBITZU HIZKUNTZA, 86/1997 DEKRETUAK JASOTZEN DUENAREN ARABERA?**

- 2a) Lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan administratuarekin izaten diren harremanetan erabiltzen den hizkuntza.
- 2b) Lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan bertan erabiltzen den hizkuntza.
- 2c) Lanpostu bati dagozkion zereginak betetzerakoan zerbitzu bat kontratatzeke erabiltzen den hizkuntza.
- 2d) Aurreko hirurak dira zuzenak.

**3 “EAEKO HERRI ADMINISTRAZIOETAKO LANPOSTU BAT BETETZEKO EZINBESTEKOA DA EZARRITA DUEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA EGIAZTATZEA”. NOIZ BETE BEHAR DA HORI, 86/1997 DEKRETUAK DIOENEZ?**

- 3a) Lanpostuari ezarritako hizkuntza eskakizunaren derrigortasun eguna urtebetera betetzen denean.
- 3b) Lanpostuari ezarritako hizkuntza eskakizunaren derrigortasun eguna igarota dagoenean.
- 3c) Lanpostuari ezarritako hizkuntza eskakizunak derrigortasun egunik ez duenean.
- 3d) Beti.

**4 EAEKO HERRI ADMINISTRAZIOETAN LANPOSTU BAT BETETZEKO, 86/1997 DEKRETUAK AGINTZEN DUENEZ, LANPOSTUAREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA EZARRITA IZATEA...**

- 4a) Beti da derrigorrezkoa.
- 4b) Goi-mailako kidegoetako lanpostuetan beti da derrigorrezkoa.
- 4c) Beti da meritua.
- 4d) Ezin da derrigorrezkoa eta meritua izan.

**5 86/1997 DEKRETUAK ZEHAZTEN DUENEZ, HERRI ADMINISTRAZIO BAKOITZEKO DERRIGORREZKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN PORTZENTAJEA...**

- 5a) Administrazio bakoitzeko agintariak finkatzen dute.
- 5b) Administrazio guztientzat bera da.
- 5c) Administrazio bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean derrigorrez bete beharreko indizeak ezartzen du.
- 5d) Administrazio bakoitzak duen langile kopuruaren arabera finkatzen da.

**6 EAEKO HERRI ADMINISTRAZIOETAKO HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO PROZESUA HEZURMAMI DADIN, ZEIN TRESNA ONARTU ETA GAUZATU BEHARKO DU ERAKUNDE BAKOITZAK, 86/1997 DEKRETUARI JARRAITUZ?**

- 6a) Euskararen erabilera normalizatzeko plana.
- 6b) Hizkuntza normalizazioa egikaritzeko aurrekontua.
- 6c) Lanpostuen zerrenda hizkuntza eskakizunekin.
- 6d) Hizkuntza eskakizunak egiaztatu ahal izateko prestakuntza egitaraua.

**7 86/1997 DEKRETUA GARATZERAKOAN, ZENBAT TREBETASUN HARTZEN DIRA KONTUAN 2. HIZKUNTZA ESKAKIZUNA ZEHAZTERAKOAN?**

- 7a) Bi.
- 7b) Hiru.
- 7c) Lau.
- 7d) Bost.

**8 EAEKO HERRI ADMINISTRAZIOETAKO EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PROZESUA ARAUTZEN DUEN 86/1997 DEKRETUARI DAGOKIONEZ, ATAL OROKORRAK DIRA:**

- 8a) Beren zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, administratuarekiko harremanetan oinarritzen denean.
- 8b) Beren zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean gertatzen denean.
- 8c) Herri administrazioaren harreman sareak oso nabarmenak eta bereziki gizarte mailakoak direnean.
- 8d) Beren zeregin nagusia bitarteko eta baliabideak eskaintzea denean.

**9 LANPOSTU BATI DERRIGORTASUN DATA JARTZERAKOAN LEHENETSIKO DEN IRIZPIDEA HONAKOA DELA DIO 86/1997 DEKRETUAK:**

- 9a) Lanpostuaren titularraren kidegoa.
- 9b) Lanpostuaren titularraren maila.
- 9c) Lanpostuaren titularraren titulazio taldea.
- 9d) Lanpostua jendaurreko atal batekoa izatea.

**10 LANGILE BATEK 86/1997 DEKRETUAK ZEHAZTEN DITUEN BALDINTZAPEAN JABETZAN DUEN LANPOSTUAREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA EGIAZTATZETIK SALBUESPENA ESKATZEN BADU, ZEIN LANPOSTURI ERAGINGO DIO?**

- 10a) Erabakia hartu den unean betetzen duen lanpostuari bakarrik.
- 10b) Erabakia hartu den unean betetzen duen lanpostuaren HE bera duten lanpostuei.
- 10c) Aurrerantzean administrazio berean bete dezakeen edozein lanposturi.
- 10d) Aurrerantzean edozein administrazioan bete dezakeen edozein lanposturi.

**11 HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBEN EDUKIA ETA FORMA; ETA BAITA IKASTEKO EGITARAUAK ETA METODOLOGIA ERE ONDORENGO ERAKUNDEAK FINKATUKO DITUELA DIO 86/1997 DEKRETUAK:**

- 11a) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.
- 11b) Hezkuntza Sailaren Hizkuntza Eskola Ofizialak.
- 11c) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE).
- 11d) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP).

**12 EUSKARAREN JAKITE MAILA EGIAZTATZEN DUTEN TITULUAK ETA ZIURTAGIRIAK BALIOKIDETZEKO 187/2017 DEKRETUAK HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEAREN 1. MAILAKO ZIURTAGIRIA BALIOKIDETZEN DU:**

- 12a) Europako Erreferentzi Marko Bateratuko A1 mailarekin.
- 12b) Europako Erreferentzi Marko Bateratuko B1 mailarekin.
- 12c) Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C1 mailarekin.
- 12d) Europako Erreferentzi Marko Bateratuko D1 mailarekin.

**13 EUSKARAREN JAKITE MAILA EGIAZTATZEN DUTEN TITULUAK ETA ZIURTAGIRIAK BALIOKIDETZEKO 187/2017 DEKRETUA INDARREAN SARTZEAREKIN HAUETAKO ZEIN AGIRI BALIOKIDETZEN DA?**

- 13a) Euskaltzaindiaren A agiria.
- 13b) Euskaltzaindiaren B agiria.
- 13c) Euskaltzaindiaren D agiria.
- 13d) Euskaltzaindiaren E agiria.

**14 EUSKARAREN JAKITE MAILA EGIAZTATZEN DUTEN TITULUAK ETA ZIURTAGIRIEN BALIOKIDETZA GUZTIAK BILTZEN DITUEN 187/2017 DEKRETUAK EEMB-REN C2 MAILAREKIN PAREKATZEN DITU ONDORENGO AGIRIAK:**

- 14a) Osakidetzaren 4. hizkuntza-eskakizuna.
- 14b) Ertzaintzaren 4. hizkuntza-eskakizuna.
- 14c) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 4. hizkuntza-eskakizuna.
- 14d) Hezkuntza Sailaren 4. hizkuntza-eskakizuna.

**15 EUSKARAREN ERABILPENA ARAUZKOTZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAK ITZULTZAILE ZERBITZU OFIZIALA SORTARAZTEA AGINTZEN DU. ZEIN ERAKUNDERI?**

- 15a) Euskal Herriko Unibertsitateari.
- 15b) Euskaltzaindiari.
- 15c) Eusko Legebiltzarrari.
- 15d) Eusko Jaurlaritzari.

**16 EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEI BURUZKO 2/2016 LEGEAK BERE ZIOEN AZALPENEAN ADIERAZTEN DU EUSKARA ERAKUNDE BAKOITZEKO LAN HIZKUNTZA IZATEA ERABAKITZEA ONDORENGOARI DAGOKIOLA:**

- 16a) Eusko Jaurlaritzan Hizkuntza Politikako ardura duen organoari.
- 16b) Kasuan kasuko toki-erakundeari.
- 16c) Erakundea dagoen Lurraldeko Foru Aldundiari.
- 16d) Erakundea dagoen Lurraldearen derrigortasun indizea %51etik gorakoa izateari.

**17 EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEI BURUZKO 2/2016 LEGEAK BERE 1. TITULUAN, TOKI ERAKUNDEEN EKINTZETAN EUSKARA ETA GAZTELANIA ERABILTZEAREN BALIO JURIDIKOARI BURUZ HONAKOA DIO:**

- 17a) Bi hizkuntzek izango dute balio juridiko osoa.
- 17b) Idatzizko ekintzetan sortze hizkuntzak izango du balio juridiko osoa.
- 17c) Idatzizko ekintzetan itzulpen zerbitzu ofizialak bermatuko die bi hizkuntzei balio juridiko osoa.
- 17d) Idatzizko ekintzetan Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitaratutako testuak bakarrik izango du balio juridiko osoa.

**18 EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEK BEREN ARTEKO HARREMANETAN ERABILI DITZAKETEN HIZKUNTZEI BURUZ HONAKOA DIO 2/2016 LEGEAK:**

- 18a) Bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte.
- 18b) Euskaratik gaztelaniarako itzulpena bermatu beharko da.
- 18c) Bi hizkuntza ofizialen arteko itzulpena bermatu beharko da.
- 18d) Hizkuntza bakarra erabiliz gero ez da beste hizkuntza ofizialerako itzulpenik aurkeztu beharrik izango.

**19 TOKI ERAKUNDEEN BILKURA PUBLIKOETAN HERRITARRAK EUSKARAZ HITZ EGITEKO ESKUBIDEARI DAGOKIONEZ EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEI BURUZKO 2/2016 LEGEAK HONAKOA ZEHAZTEN DU:**

- 19a) Aurrez adierazten dutenean eta itzulpena eskatzen badute euskaraz bakarrik hitz egin ahal izango dute.
- 19b) Kasuan kasuko toki-erakundeak itzulpen zerbitzua duenean euskaraz bakarrik hitz egin ahal izango dute.
- 19c) Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango du herritarrak.
- 19d) Herritarrak euskaraz bakarrik adierazten duenaren laburpen motz eta zehatza bermatzen badu.

**20 EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEI BURUZKO 2/2016 LEGEAREN ARABERA, TOKI ERAKUNDEEK EGITEN DITUZTEN KONTRATUETAN BEHARREZKOA DEN ZEIN KLAUSULA SARTUKO DA?**

- 20a) Kontratuaren xedeak bete dezala bere izaeratik eta zerbitzuaren titularra den toki-erakundearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza legeria.
- 20b) Herritarrak artatuak izan daitezela berek hautatzen duten Erkidegoko hizkuntza ofizialean.
- 20c) Zerbitzua eman dadila, hizkuntza baldintzei dagokienez, zerbitzuaren administrazio titularrari exijitu ahal zaizkion baldintza beretan.
- 20d) Aurreko hirurak.

**21 EUROPAKO ELKARTEKO HERRITARREN BATEK ELKARTEAN OFIZIAL DIREN HIZKUNTZETAKO BATEAN IDATZI BAT AURKEZTEN DIONEAN GASTEIZKO UDALARI, ZEIN HIZKUNTZA ERABILI BEHARKO DU HONEK ERANTZUTERAKOAN BERE HIZKUNTZA OFIZIALEN ORDENANTZAREN ARABERA?**

- 21a) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak.
- 21b) Estatuko hizkuntza ofiziala.
- 21c) Europako Elkarteko hizkuntza ofizial erabiliena.
- 21d) Herritarrak erabili duen bera.

**22 NORI DAGOKIO GASTEIZKO UDALEKO HIZKUNTZA OFIZIALEN ORDENANTZA BETETZEN DELA AZTERTU ETA EBALUATZEA?**

- 22a) Udaleko Lehendakaritzako irizpen-batzordeari.
- 22b) Udaleko Euskara Zerbitzuari.
- 22c) Erregistro Nagusian izena emanda dauden elkarte eta erakundeei.
- 22d) Aurreko guztiei, elkarlanean.

**23 187/2017 DEKRETUAK EUSKARAREN JAKITE MAILA EGIAZTATZEN DUTEN TITULU ETA ZIURTAGIRIAK PAREKATZEN DITU:**

- 23a) Estatuko hizkuntza ofizialen curriculumarekin.
- 23b) Cervantes Institutuaren mailen sailkapenarekin.
- 23c) Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin.
- 23d) Bigarren hizkuntza ikasteko portfolioen mailen sailkapenarekin.

**24 EUSKARAREN JAKITE MAILA EGIAZTATZEN DUTEN TITULU ETA ZIURTAGIRIAK BALIOKIDETZEN DITUEN 187/2017 DEKRETUAREN SAILKAPENAREN ARABERA, ZEREKIN PAREKATZEN DA UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASPOSTUEN 2. HIZKUNTZA ESKAKIZUNA?**

- 24a) C2.
- 24b) C1.
- 24c) B2.
- 24d) B1.

**25 ESKUALDEETAKO EDO EREMU URRIKO HIZKUNTZEN EUROPAKO GUTUNAK HONELA DEFINITZEN DITU HIZKUNTZA HORIEK:**

- 25a) Estatu bateko hizkuntza ofizialen dialektoak.
- 25b) Estatu batean bizi diren etorkinen hizkuntzak.
- 25c) Estatu bateko gutxiengoa izanik, tradizioz hitz egiten direnak.
- 25d) Biztanle gutxi dituzten estatu txikietako hizkuntza ofizialak.

**26 ESKUALDEETAKO EDO EREMU URRIKO HIZKUNTZEN EUROPAKO GUTUNAK AIPATZEN DU ALDEEK BEREN POLITIKA, LEGEDIA ETA JARDUNA ZERRENDATZEN DEN HELBURU EDO PRINTZPIO BATEAN EDO BATZUETAN OINARRITUKO DUTELA. HALA NOLA:**

- 26a) Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak aitortzea, kultur aberastasunaren erakusle direlako.
- 26b) Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak aitortzea, tradizioen gordailu direlako.
- 26c) Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak aitortzea, bertako gizartearen bilakaeraren adierazle direlako.
- 26d) Aurreko hirurak zuzenak dira.

**27 HIZKUNTZA POLITIKAN ESKUMENA DUEN EUSKO JAURLARITZAKO SAILAK GIZARTE MAILAN EUSKARA SUSTATZEKO, GARATZEKO EDOTA NORMALIZATZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIAREN BIDEZ (EUSKALGINTZA DEIALDIA) ZEIN EGITASMO LAGUNTZEN DITU?**

- 27a) Euskaraz ez dakiten euskal herritarrak eta etorkinak euskarara hurbiltzeko helburua dutenak.
- 27b) Euskara ikasteko metodoak eta helduen alfabetatzearen eremukoak.
- 27c) Lan munduan euskararen sustapena edota garapena helburu dutenak.
- 27d) Eremu akademikoan euskararen sustapena edota garapena helburu dutenak.

**28 ZEIN DA EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN (ESEP) HELBURU NAGUSIA?**

- 28a) Euskararen normalizazioa sustatzea.
- 28b) Euskararen erabilera indartzea.
- 28c) Euskararen jabekuntza areagotzea.
- 28d) Euskararen corpusa eta estatusa garatzea.

**29 NORTZU EDO ZEINTZU DIRA EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP) GARATZEKO DIRULAGUNTZEN ONURADUNAK?**

- 29a) Euskal Autonomia Erkidegoko edozein pertsona fisiko edo juridiko.
- 29b) Euskal Autonomia Erkidegoko irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateak.
- 29c) Euskal Autonomia Erkidegoko entitate pribatuak.
- 29d) Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak.

**30 ARABAKO FORU ALDUNDIAK FORU DEKRETU BIDEZ HELDUEN EUSKALDUNTZERAKO DIRULAGUNTZAK EMATEN DITU URTERO. ZEIN MAILETAKO IKASKETAK DIRUZ LAGUNTZEN DITU?**

- 30a) A1, B1 eta C1.
- 30b) A2, B2 eta C2.
- 30c) A1, A2, B1 eta B2.
- 30d) B1, B2, C1 eta C2.

**31 GASTEIZKO UDALAK BEKA BATZUK EMATEN DITU URTERO HERRITARREI EUSKARA IKASTEN LAGUNTZEKO. ZEIN IKASTARO HARTZEN DITUZTE BERE BAITAN BEKA HORIEK?**

- 31a) Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako euskarazko ikastaroak.
- 31b) Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako euskara sustatzeko ikastaroak.
- 31c) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateek antolatutako euskara normalizatzeko ikastaroak.
- 31d) Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako ikastaroak.

**32 EUSKARARA EGINDAKO ITZULPENIK HOBERENENTZAKO SARIAK BANATZEN DITU URTERO GASTEIZKO UDALAK:**

- 32a) Helduentzako literatura itzulpen lanei, generoa edozein dela ere.
- 32b) Haur eta gazteentzako literatura itzulpen lanei, generoa edozein dela ere.
- 32c) Itzulpen enpresek egindako literatura itzulpen lanei, generoa edozein dela ere.
- 32d) Edozein literatura generoko itzulpen lanei, beti ere, gaia euskararen erabilera sustatzean oinarritzen bada.

**33 GASTEIZKO UDALAK EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO URTERO EMATEN DITUEN DIRULAGUNTZEN BERARIAZKO ILDO BAT DA...**

- 33a) Aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroak antolatu eta ematekoa.
- 33b) Euskal musika ikastaroak antolatu eta ematekoa.
- 33c) Gazteentzako "Gaubelak gizarte etxeetan" egitasmoa antolatu eta garatzekoa.
- 33d) Euskal dantza ikastaroak antolatu eta ematekoa..

**34 GASTEIZKO UDALAK "EUSKARAREN ASTEAN ETA EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PROIEKTUETARAKO DIRULAGUNTZA" ILDO BAT ERE BADU. NORTZU IZAN DAITEZKE ONURADUNAK?**

- 34a) Euskarazko egitasmoak aurkezten dituen edonor, euskaraz izatea arrazoi nahikoa baita.
- 34b) "Eusle" izeneko egitasmoaren egun horietarako programazio zehatza aurkezten duena .
- 34c) Aipatutako ildoaren inguruan Udaleko Euskara zerbitzuak antolatutakoa garatzen dutenak.
- 34d) Euskararen astea hilero antolatzea ahalbidetzen duten egitasmo zehatzak

**35 SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUAREN ARABERA, HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIO-PROZESUAN, SÁNCHEZ CARRIONEK (TXEPETX) GAKO BATZUK AURKEZTU ZITUEN SEGIDA BATEAN EMANIK, NORMALIZAZIOAREN ETA GALERAREN ARTEKO BIDEAN. GAKOAK HONAKOAK DIRA:**

- 35a) Euskararen erabilera-maila, euskararekiko leialtasuna eta elebidunen proportzioa.
- 35b) Hitzunen trinkotasuna eta egituraketa, lege-estatusa, funtzioen banaketa, herri-identitatearen eta auto-konfiantzaren indarra eta ondoriozko sormena.
- 35c) Hizkuntza biziberritzeko plangintza, ikerketa soziolinguistikoa eta corpusaren batasunerako urratsak.
- 35d) Hizkuntza-aldakortasuna, hizkuntzarekiko jarrera eta dibertsitatearen hedadura.

**36 SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUAREN ARABERA, UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAK (UEMA) HIRU HELBURU NAGUSI DITU:**

- 36a) Udalerrri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua, euskaraz izan dadin bideak urratzea. Udalerrri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lur-gunea osatzea. Udalerrri euskaldunen garapen sozio-ekonomikoa eta soziokulturala bultzatzea.
- 36b) Udalerrri euskaldunetan herritar erdaldunek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua, euskaraz izan dadin bideak urratzea. Udalerrri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lur-gunea osatzea. Udalerrri euskaldunen garapen sozio-ekonomikoa eta soziokulturala bultzatzea.
- 36c) Udalerrri euskaldunetan herritar euskaldunek egiten duten bizitza publikoa euskaraz izan dadin bideak urratzea. Udalerrri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lur-gunea osatzea. Udalerrri euskaldunen garapen sozio-ekonomikoa eta soziokulturala bultzatzea.
- 36d) Udalerrri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua, euskaraz izan dadin bideak urratzea. EAEko udalerrri guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lur-gunea osatzea. Udalerrri euskaldunen garapen sozio-ekonomikoa eta soziokulturala bultzatzea.

**37 SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUAREN ARABERA, 1999AN EUSKO LEGEBILTZARRAK ONARTU ZUEN EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIAK (EBPN) HIRU LAN-ESPARRU (EDO HELBURU ESTRATEGIKO) EZARRI ZITUEN:**

- 37a) Euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioak etenik izan ez dezan lortzea. Euskararen erabilera gizarteratzeko esparru guztietara zabaltzea. Euskara bera, komunikazio-tresna den aldetik, lantzea eta aberastea.
- 37b) Hizkuntza-gaitasun erlatiboa handitzea. Aldeko baldintza demolinguistikokoak areagotzea. Hizkuntzaren gizarte-ospe eta erakargarritasuna handitzea.
- 37c) Hizkuntza bere osotasun guztian arautzea. Euskaldunek Euskaltzaindiak aurkeztutako eredu onartzea. Euskaldunek eredu hori erraz eta eroso erabiltzeko gauza izatea.
- 37d) Hizkuntza-aniztasuna zaintzea. Talde-identitateak zaintzea. Hizkuntza gutxituaren komunitatea eta hizkuntza nagusiaren komunitatea aurrez aurre jartzea.



**38 SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUAREN ARABERA, ZER DA SOZIOLEKTOA EDO DIALEKTO SOZIALA?**

- 38a) Gizarte-talde baten aldaera linguistikoa da; hiztunaren ezaugarri sozialen araberako aldaki multzoa. Soziolekto terminoaren barruan, lanbide jakin bati dagozkion aldaera zein gizarte-mailari dagozkion aldaerak barnebiltzen dira.
- 38b) Norbanakoaren aldaera da, hiztun bakoitzaren hizkera.
- 38c) Hizkera-komunitate jakin batean, komunikatzeko, idatzi gabeko hainbat konbentzio daude, bertako partaideek ondo ezagutu behar dituztenak. Gizabanakoek duten ezagutza orokor hori da soziolektoa.
- 38d) Hizkuntza-ekintza jakin batean, testuingurua kontuan izanda (igorlea, hartzailea, helburua, erabilera-esparrua) erabiltzen den hizkera da.

**39 SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUAREN ARABERA, ZER DA HIZKUNTZA-KOMUNITATEA?**

- 39a) Aldagai-multzo batean aldaki jakin batzuk hautatuz sortzen den hizkuntzaren erabilera sailkagarria, nolabaiteko sistema osatzen duena.
- 39b) Soziolinguistikaren aztergai den unitate soziala da. Autore batetik bestera, terminoaren adiera aldatu egiten den arren, oro har, esan daiteke hizkuntza bera erabiltzen duten hiztunek osatzen dutela hizkuntza-komunitatea.
- 39c) Berezko sistema lexiko, morfosintaktiko eta fonetikoak daukan aldaera da.
- 39d) Gizarte-parametro jakin batzuei begira aukeratzen den hiztun-lagina da.

**40 SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUAREN ARABERA, ZER DA HIZKUNTZA-UKIPENA?**

- 40a) Gizarte-egoera da. Hizkuntza-komunitate batean bi hizkuntza edo hizkuntza-barietate desberdin erabiltzea da. Hizkuntza edo barietate horiek esparru edo funtzio desberdinetarako erabiltzen dira.
- 40b) Gizarte berean hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten direnean, hizkuntza horien artean sortzen den erlazioa da.
- 40c) Hiztun edo giza talde batek bi hizkuntza jakitea eta txandaka erabiltzea da.
- 40d) Esakune berean hizkuntza bat baino gehiago erabiliz hitz egitea da; adibidez, esakune bat euskaraz hasi eta erdaraz amaitzea.

**41 SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUAREN ARABERA, ZER DA DIGLOSIA?**

- 41a) Banako nolakotasuna da; bi hizkuntza jakitea eta txandaka erabiltzea da.
- 41b) Bi hizkuntzaren edo bi hizkuntza-komunitateren artean gertatzen den lehia da. Gizartean erabilera-eremuak eta funtzio sozialak eskuratzea eta, ondorioz, besteari nolabait kentzea da lehia horren funtsa.
- 41c) Gizarte-egoera da. Hizkuntza-komunitate batean bi hizkuntza edo bi hizkuntza-barietate desberdin erabiltzea da. Hizkuntza edo barietate horiek esparru eta funtzio desberdinetarako erabiltzen dira.
- 41d) Minorizazio-egoeran dagoen hizkuntza egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztietara hedatzeko prozesua.

**42 SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUAREN ARABERA, ZER DA HIZKUNTZA-IDEOLOGIA?**

- 42a) Hiztunak egoera soziolinguistikoa jakin batean egiten duen aukera linguistikoa da.
- 42b) Pertsona edo giza talde batek hizkuntzei buruz dituen ideien multzoa da. Ideologia hori erabilera, diskurtso edo portaera linguistikoa jakin batzuen bidez adierazten da.
- 42c) Norbanakoaren barnean norbere uste, afektu eta nahietatik sortzen den motibazioa da.
- 42d) Hizkuntza edo aldaera zehatz baten inguruan orokortu diren uste edo sinesteak.

**43 SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUAREN ARABERA, JARRERA INTEGRATZAILEAK:**

- 43a) Hizkuntza edo aldaera zehatz hori hitz egiteak dakartzan onurak kontuan hartuz, horren alde ekiteko joera. Onura horiek ekonomikoak edota sozialak izan daitezke.
- 43b) Norbanakoaren barnean norbere uste, afektu eta nahietatik sortzen den motibazioa da.
- 43c) Norberarengandik at dagoen presioa dela-eta garatzen den motibazioa da.
- 43d) Hizkuntza horretako erkidegoaren parte izateari edo izan nahiari erantzuten dio. Hizkuntzen identitate-emaile izaeran ere adierazten da, baita atxikimendu-sentimenduarekin ere.

**44 SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUAREN ARABERA, ZER DA HIZKUNTZA-POLITIKA?**

- 44a) Beste batzuen hizkuntza-portaeran eragiteko, hizkuntzen eta hizkuntza-aldaeren irakaskuntzan, egiturari eta funtzioetan egindako ahalegin kontzientea da.
- 44b) Erakunde publikoek hizkuntzen erabilera antolatze eta arautzeko egiten dituzten eskuhartzeen multzoa da.
- 44c) Hizkuntza-plangintzaren osagaietako bat da, alderdi linguistikoa lantzen duena.
- 44d) Hizkuntzari esleitzen zaion lege-estatusa da. Horren ondorioz, hizkuntza horrek lege balioa izango du estatus hori esleitu zaion lurralde horretan.

**45 SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUAREN ARABERA, ZER DA OFIZIALTASUNA?**

- 45a) Norbanakoak edota taldeak eremu pribatuan zein publikoan hizkuntza edo hizkuntzak hautatzeko duten giza eskubide zibila da.
- 45b) Hizkuntza gutxitua nagusi izango den gune geografikoak egotea da.
- 45c) Minorizazio-egoeran dagoen hizkuntza egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztietara hedatzeko prozesua da.
- 45d) Hizkuntzari esleitzen zaion lege-estatusa da. Horren ondorioz, hizkuntza horrek lege balioa izango du estatus hori esleitu zaion lurralde horretan.

**46 SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUAREN ARABERA, METODOLOGIA KUANTITATIBOA HONAKO KASUETAN ERABILIKO DA NAGUSIKI:**

- 46a) Ikerketa esploratzaile bat egin nahi denean, oinarritzko ikerketa bat, argazki orokor bat jaso nahi denean, aurretik datu zehatzik ez dagoela. Hori dela eta, askotan errealitate baten gainean osatzen diren diagnostikoak oinarrian teknika kuantitatibo bat dute (gehienetan inkesta bat).
- 46b) Gertakari baten aurrean egon daitezkeen ikuspuntu, jarrera eta iritzi ezberdinak sakontasunez ezagutzeko.
- 46c) Gertakari edo gai baten garapenean (eboluzioan) sakontzeko eta etorkizunerako lan-ildoak aurreikusteko, sormen-lana bultzatzeko eta taldekako hausnarketa sustatzeko.
- 46d) Jokabide sozialen zentzuak eta esangurak ulertzeko.

**47 BIKAIN-EUSKARAREN KALITATE ZIURTAGIRIAREN HARTZAILEAK HONAKOAK IZAN DAITEZKE:**

- 47a) Alor sozio-ekonomikoko entitate pribatuak, osorik edo partzialki, eta sozietate publikoak baldin eta beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan egiten badute. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten honako erakunde publiko hauek: Estatuko Administrazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Administrazio Institutuzionalak: erakunde autonomoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak. Horrez gain, Toki eta Foru Administrazioek eta beren erakunde autonomoak.
- 47b) Alor sozio-ekonomikoko entitate pribatuak, osorik edo partzialki, eta sozietate publikoak baldin eta beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan egiten badute. Erakunde publikoek ezin dute hizkuntza-kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko sistema honetan parte hartu.
- 47c) Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten honako erakunde publiko hauek: Estatuko Administrazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Administrazio Institutuzionalak: erakunde autonomoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak. Horrez gain, Toki eta Foru Administrazioak eta beren erakunde autonomoak. Alor sozio-ekonomikoko entitate pribatuek eta sozietate publikoek ezin dute hizkuntza-kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko sistema honetan parte hartu.
- 47d) Alor sozio-ekonomikoko edozein entitate pribatuk, osorik edo partzialki, sozietate publikok eta erakunde publikok parte har dezake hizkuntza-kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko sistema honetan.

**48 BIKAIN-EUSKARAREN KALITATE ZIURTAGIRIAREN EDUKIARI DAGOKIONEZ,**

- 48a) Hizkuntza-kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko sistemak oinarrian duen osagaia Erreferentzia Marko Estandarra (EME) da. EME lanerako markoa da, ez-arauemailea. Erreferentzia Marko Estandarrak ardatz bakarra du: zerbitzu-hizkuntza.
- 48b) Hizkuntza-kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko sistemak oinarrian duen osagaia Erreferentzia Marko Estandarra (EME) da. EME lanerako markoa da, ez-arauemailea. Erreferentzia Marko Estandarrak bi ardatz ditu: zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza.
- 48c) Hizkuntza-kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko sistemak oinarrian duen osagaia Erreferentzia Marko Estandarra (EME) da. EME lanerako markoa da, ez-arauemailea. Erreferentzia Marko Estandarrak ardatz bakarra du: lan-hizkuntza.
- 48d) Hizkuntza-kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko sistemak oinarrian duen osagaia Erreferentzia Marko Estandarra (EME) da. EME lanerako markoa da, ez-arauemailea. Erreferentzia Marko Estandarrak bi ardatz ditu: zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza. Ebaluazioa eskatu duen erakundeak aukeratuko du zein ardatz neurtu.

**49 BIKAIN-EUSKARAREN KALITATE ZIURTAGIRIAREN EGIAZTAPEN-SISTEMA ETA PROZESUAREN FASEEI DAGOKIENEZ,**

- 49a) Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratzeko ebaluazioa Eusko Jaurlaritzak proposatuko dio establezimendu, enpresa edo erakundearen ordezkariari, eta honek erabakiko du ebaluazioa egin ala ez.
- 49b) Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratzeko ebaluazioa establezimendu, enpresa edo erakundearen ordezkariak eskatu beharko du, eta urtean zehar egiten den ebaluazio-kopurua mugatua denez, Eusko Jaurlaritzak aukeraketa egingo du ebaluazioa eskatu dutenen artean.
- 49c) Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratzeko ebaluazioa establezimendu, enpresa edo erakundearen ordezkariak eskatu beharko du, eta Eusko Jaurlaritzak ebaluazio-zerbitzua eskainiko die. Ebaluazio-zerbitzuaren kostua eskatzailearen kargu izango da.
- 49d) Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratzeko ebaluazioa establezimendu, enpresa edo erakundearen ordezkariak eskatu beharko du, eta Eusko Jaurlaritzak doako ebaluazio-zerbitzua eskainiko die.

**50 HIZKUNTZA-ERABILERAREN VII. KALE-NEURKETAREN ARABERA:**

- 50a) Lehen kale-neurketa egin zenetik, hogeita zazpi urteetan, eten gabe egin du gora euskararen erabilerak.
- 50b) Lehen kale-neurketa egin zenetik, hogeita zazpi urteetan, 1,8 puntu egin du gora euskararen erabilerak. Baina, duela hamar urtetik hona euskararen kale-erabilera apaldu egin da.
- 50c) Lehen kale-neurketa egin zenetik, hogeita zazpi urteetan, eten gabe egin du behera euskararen erabilerak.
- 50d) Lehen kale-neurketa egin zenetik, hogeita zazpi urteetan, 5 puntu egin du gora euskararen erabilerak. Baina, duela hamar urtetik hona euskararen kale-erabilera apaldu egin da.

**51 HIZKUNTZA-ERABILERAREN VII. KALE-NEURKETAREN ARABERA:**

- 51a) Oro har, erabilera daturik altuenak haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean jasotzen dira, eta erabilera daturik baxuenak nagusiak haurren presentziarik gabe ari direnean.
- 51b) Oro har, erabilera daturik baxuenak haurrak elkarrekin daudenean jasotzen dira.
- 51c) Oro har, erabilera daturik altuenak helduak elkarrekin daudenean jasotzen dira.
- 51d) Oro har, adinaren arabera ez dago alderik euskararen erabileran.

**52 XABIER ERIZEK DIOENEZ, MOTIBO SUBJEKTIBOEN ESPARRUAN, ETA SUSTATZE LANARI DAGOKIONEZ:**

- 52a) Komeni da ulertzea herritarrek dituzten portaera linguistikoak aldaezinak direla eta testuinguru sozialak ez duela horretan eraginik.
- 52b) Komeni da ulertzea herritarrek, hiztunek, portaera linguistikoak dituztela, hautaketak egiten dituztela eta motibo subjektiboak dituztela horiek egiteko, testuinguru soziala ere badagoela ahaztu gabe.
- 52c) Komeni da ulertzea testuinguru sozialak erabat baldintzatzen dituela herritarren, hiztunen, portaera linguistikoak.
- 52d) Komeni da ulertzea herritarren, hiztunen, portaera linguistikoek bigarren mailako garrantzia dutela.

**53 EUSKARA-ERDARAK AURRERA BEGIRA ELKAR HARTUZKO FORMULA EGONKOR BATEAN UZTARTZEKO, MIKEL ZALBIDEK PROPOSATZEN DITUEN LEHENTASUNEZKO NEURRIEN ARTEAN:**

- 53a) Konpartimentazio soziofuntzional argiko elebitasun-molde egonkorra behar du euskarak, lehenik eta behin, bizirik aterako bada: euskaldunok gure artean euskaraz jarduteko ahalik eta behar, komenentzia edota aukera ugarienak eragiten dituen konpartimentazioa.
- 53b) Azken hamarkadetako bideari jarraituz, «lehendabizi ikasi, gero egin» formulazioari ekin behar zaio.
- 53c) Gizarte-bizitzan euskaraz egiteko aukera, komenentzia eta beharra eragiten duten prozesu hurbilak bigarren mailakoak dira, eta egoera jakin batzuetan baino ez dira kontuan hartu behar.
- 53d) Eremu erdaldunen funtsezko izaera aitortzetik bere aldeko neurri sendoak aplikatzera pasa behar da.

**54 EUSKARAREN ADIERAZLE SISTEMAK (EAS) HONAKO BOST ATAL NAGUSI HAUEN ARABERA DAGO EGITURATUTA:**

- 54a) EASek ez du egitura nagusi jakinik.
- 54b) Euskararen estatus juridikoa, ardatzen datu orokorrak, jabekuntza adierazleak, hizkuntza-adierazle orokorrak eta adierazle soziodemografikoak.
- 54c) EASek ez ditu bost atal nagusi, lau baizik. Izan ere, ez dago adierazle soziodemografikoei buruzko atalik.
- 54d) EASek ez ditu bost atal nagusi, lau baizik. Izan ere, ez du euskararen estatus juridikoari buruzko aipamenik egiten.

**55 VI. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA, EUSKALDUNEN BILAKAERARI DAGOKIONEZ:**

- 55a) Euskaldunen portzentajeak 3 puntu egin du behera 1991 eta 2016 bitartean.
- 55b) Euskaldunen portzentajeak ez du aldaketarik izan 1991 eta 2016 bitartean.
- 55c) 2016an 1991n baino 223.000 euskaldun gehiago daude euskararen eremu osoan. 6 puntuko hazkundea izan dute euskaldunek ehunekoetan (% 22,3 versus % 28,4).
- 55d) 2016an 1991n baino 50.000 euskaldun gehiago daude euskararen eremu osoan. 2 puntuko hazkundea izan dute euskaldunek ehunekoetan (% 10,3 versus % 12,3).

**56 VI. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA, EUSKALDUNEN LEHEN HIZKUNTZARI DAGOKIONEZ:**

- 56a) EAEn euskaldun zaharrak nagusi dira adin-talde guztietan.
- 56b) 1991 eta 2016 bitartean ez da aldaketarik izan euskaldunen lehen hizkuntzan.
- 56c) 1991 eta 2016 bitartean gehien hazi den multzoa jatorrizko elebidunena da
- 56d) Gaur egun, 16-24 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago euskaldun berria da (% 54,3) eta 25-34 urte bitartekoen ia erdia (% 48). 1991n, ordea, 16-24 urte bitarteko euskaldunen laurdena besterik ez zen euskaldun berria (% 25,5) eta 25-34 urte bitartekoen bostena (% 21,3).

**57 GASTEIZKO UDALAREN EBPN-REN HELBURU NAGUSIA BETE AHAL IZATEKO, TOKI-ERAKUNDEEK KANPOKO JARDUNARI BEGIRA, ZEIN EGINBEHAR NAGUSI DUTE?**

- 57a) Hitzunek euskara ikastea.
- 57b) Harreman sare euskaldunak egituratzen laguntzea,
- 57c) Euskarazko produktuak eta zerbitzuak zein horien gaineko informazio zehatza bideratzea.
- 57d) Aurreko hirurak batera.

**58 UDALAK EBPN-REN JARRAIPENA EGINGO DU:**

- 58a) Gutxienez urtean behin.
- 58b) Gutxienez bi urtean behin.
- 58c) Lau urtean behin.
- 58d) Horretarako beharra ikusten den bakoitzean.

**59 GASTEIZKO UDALAREN EBPN-REN TARTEKO ERRONKETAKO BAT HELDUEN EUSKALDUNTZEA DA. HORRI BEGIRA, ETA EUSKALTEGIEN LANA OSATZEKO, BEHARREZKOA DA:**

- 59a) Harreman-sare formalak antolatzea.
- 59b) Euskaraz aritu nahi dutenei diru-laguntzak ematea.
- 59c) Harreman-sare informalak eta euskararen erabilera ez formala ahalbidetu ahal duten ekintzak eta jarduerak antolatzea.
- 59d) Euskararen erabilera ez formala ahalbidetu ahal duten ekintzak eta jarduerak antolatzea.

**60 GASTEIZKO UDALAREN EBPN-REN TARTEKO ERRONKETAKO BAT IRAKASKUNTZA ETA FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA DA. ERRONKA HORREN LAN-ILDOAK DIRA:**

- 60a) Gelaz eta eskolaz kanpokoetan ikasleen erabilera indartzea, familian euskararen transmisioa eta erabilera indartzea eta atzerriko familiak euskarara gerturatzea.
- 60b) Gelaz eta eskolaz kanpokoetan ikasleen erabilera indartzea eta familian euskararen transmisioa eta erabilera indartzea.
- 60c) Herritarrek euskara ikastea edo duten gaitasuna sendotzea.
- 60d) Gurasoek euskara ikastea.

**61 GASTEIZKO UDALAREN EBPN-REN TARTEKO ERRONKETAKO BAT KULTURA ETA HEDABIDEAK DIRA. ERRONKA HORREN LAN-ILDOAK DIRA:**

- 61a) Euskarazko kulturgintza indartzea eta garatzea.
- 61b) Euskarazko komunikabideak sustatzea eta euskarazko kulturgintza indartzea eta garatzea.
- 61c) Euskararen presentzia soziala lantzea.
- 61d) Aurreko hiruretako bat ere ez.

**62 GASTEIZKO UDALAREN EBPN-REN TARTEKO ERRONKETAKO BAT GAZTEAK DIRA. HONAKO DATUETATIK, ZEIN DA ZUZENA?**

- 62a) 30 urtetik beherako biztanleen herena baino gehiago dagoeneko elebidunak dira Gasteizen.
- 62b) 30 urtetik beherako biztanleen bi heren baino gehiago dagoeneko elebidunak dira Gasteizen.
- 62c) 30 urtetik beherako biztanleen erdia baino gehiago dagoeneko elebidunak dira Gasteizen.
- 62d) 30 urtetik beherako biztanleen ehuneko hamar dagoeneko elebidunak dira Gasteizen.

**63 GASTEIZKO UDALAREN EBPN-EN JASOTAKOAREN ARABERA:**

- 63a) Haurren presentzia eragin handiko aldagaia da hizkuntzen erabileran; modu esanguratsuan baldintzatzen du haurrak inguruan izateak hitz egiteko garaian.
- 63b) Haurren presentzia eragin handiko aldagaia da euskararen kale-erabileran; modu esanguratsuan baldintzatzen du haurrak inguruan izateak gaztelaniaz hitz egiteko garaian.
- 63c) Haurren presentzia ez da eragin handiko aldagaia euskararen kale-erabileran; Gasteizen ez du apenas baldintzatzen haurrak inguruan izateak euskaraz hitz egiteko garaian.
- 63d) Haurren presentzia eragin handiko aldagaia da euskararen kale-erabileran; modu esanguratsuan baldintzatzen du haurrak inguruan izateak euskaraz hitz egiteko garaian.

**64 URRIAREN 14KO 241/2003 DEKRETUAK (HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN EGITURA ETA EGINKIZUNAK ARAUTZEN DITUENAK) EZARTZEN DU ERAKUNDE HAUETAKO BATI DAGOKIOLA EUSKADIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZURA DAUDEN LANGILEEN HIZKUNTZA-GAITASUNA SUSTATU, ANTOLATU ETA EBALUATZEA:**

- 64a) Hizkuntza Politikarako sailburuordetzari.
- 64b) Dagokion udal edo foru-administrazioari.
- 64c) Funtzio Publikoaren sailburuordetzari.
- 64d) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari (IVAPi).

**65 2005EKO AZAROAREN 30EKO AGINDUAK, OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILBURUARENAK, ARAUTZEN DU HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAK (IVAP) EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HERRI-ERAKUNDEEI ESKAINIKO DIEN HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZAKO ZERBITZUA. ZERBITZU HORI JASO AHAL IZATEKO, HERRI-ERAKUNDEEK HONAKO BALDINTZA HAUEK BETE BEHARKO DITUZTE:**

- 65a) Hizkuntza-normalizaziorako plana onartuta izatea, beti ere, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera, eta IVAPekin lankidetzeta-hitzarmenaren eredu berria izenpetuta izatea.
- 65b) Hizkuntza Politikarako sailburuordetzaren baimena izatea eta IVAPekin lankidetzeta-hitzarmenaren eredu berria izenpetuta izatea.
- 65c) Hizkuntza Politikarako sailburuordearen eta IVAPeko zuzendariaren baimena izatea.
- 65d) Hizkuntza Politikarako sailburuordetzarekin lankidetzeta-hitzarmena izenpetuta izatea.

**66 2005EKO AZAROAREN 30EKO AGINDUAK, OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILBURUARENAK, DEFINITZEN DU ZER DEN HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZARAKO ORDU-KREDITUA:**

- 66a) Hizkuntza-eskakizun bakoitza lortzeko langileak erabiliko duen prestakuntza-orduen gehienezko kopurua, hasiera-maila jakin batetik abiatuta.
- 66b) Hizkuntza-eskakizun bakoitza lortzeko herri-administrazioak finantzatuko duen prestakuntza-orduen gehienezko kopurua, hasiera-maila jakin batetik abiatuta.
- 66c) Hizkuntza-eskakizun bakoitza lortzeko herri-administrazioak finantzatuko duen prestakuntza-orduen gutxienezko kopurua, hasiera-maila jakin batetik abiatuta.
- 66d) Hizkuntza-eskakizun bakoitza lortzeko herri-administrazioak finantzatuko duen prestakuntza-orduen gutxienezko kopurua.

**67 2005EKO AZAROAREN 30EKO AGINDUAK, OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILBURUARENAK, ARAUTZEN DU EUSKARA- IKASTAROETARA JOATEN DIREN LANGILEAK ORDEZKATZEKO DIRULAGUNTZAK NOLA ESLEITZEN DIREN.**

- 67a) Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan izendatutako dirua erabiliko da, zehazki Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokiona.
- 67b) Horretarako, udal edo foru-administrazioaren aurrekontu orokorretan izendatutako dirua erabiliko da.
- 67c) Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan izendatutako dirua erabiliko da, zehazki Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea erakunde autonomiadunari dagokiona
- 67d) Aurreko hirurak zuzenak dira.

**68 IVAP-EKO (HAEE-KO) BERARIAZKO HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA: UDAL ETA FORU ALDUNDIETAKO LANGILEEN KASUAN:**

- 68a) Oniritzi epea amaitu ondoren, IVAPek eskariak onartu edo ukatu egingo ditu.
- 68b) Oniritzi epea amaitu ondoren, erakundeko prestakuntza teknikariak edota hizkuntza normalkuntzarako teknikariak eskariak onartu edo ukatu egingo ditu.
- 68c) Oniritzi epea amaitu ondoren, IVAPek eskarien berri emango dio erakundeari.
- 68d) Aurreko guztiak okerrak dira.

**69 IVAP-EK EGIAZTAZEN DITUEN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK ZER DIRA?**

- 69a) EAeko administrazioen zerbitzuan diharduten langileen euskara-gaitasuna da hizkuntza-eskakizuna.
- 69b) Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailak.
- 69c) Herritarren euskara-maila neurtzeko erabiltzen diren azterketak.
- 69d) HABek egiaztatzen dituen euskara-mailak.

**70 NOLA EGIAZTATZEN DIRA HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK?:**

- 70a) IVAPek antolatzen dituen ohiko deialdietan.
- 70b) IVAPek eta HABek antolatzen dituzten deialdietan.
- 70c) IVAPek, HABek eta Hizkuntza Eskolek antolatzen dituzten deialdietan.
- 70d) IVAPek antolatzen dituen deialdietan, herri-administrazioko erakundeek (udalek, aldundiek...) euren lanpostuak betetzeko deitzen dituzten hautaketa-prozesuetan, edota Europako Erreferentzi Marko Bateratuak bideratutako euskara tituluen baliokidetzaren bidez

**71 IVAPEK EGIAZTATZEN DITUEN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNETARAKO AZTERKETAK ZUZENTZEN DITUZTEN AZTERTZAILEEK NOLA FINKATZEN DITUZTE ZUZENKETARAKO IRIZPIDE BATERATUAK?**

- 71a) Urtean zehar jasotzen dituzten prestakuntza-saioretan.
- 71b) Urtean zehar jasotzen duten prestakuntza-saio bakarrean.
- 71c) Ez dituzte zertan finkatu.
- 71d) IVAPEk finkatzen ditu zuzenketa-irizpideak, baina ez ditu aztertzaileekin lantzen.

**72 GASTEIZKO MINTZALAGUNA PROGRAMAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK HAUEXEK DIRA:**

- 72a) Euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila izatea (B2.2 maila, euskaltegiko 8. urratsa, edo baliokidea) eta, salbuespenak salbuespen, astean behin biltzeko konpromisoa hartzea A1.
- 72b) Euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila izatea (B1.2 maila, euskaltegiko 6. urratsa, edo baliokidea) eta, salbuespenak salbuespen, astean behin biltzeko konpromisoa hartzea.
- 72c) Euskaraz komunikatzeko interesa erakustea eta, salbuespenak salbuespen, astean behin biltzeko konpromisoa hartzea.
- 72d) Ez dago baldintzarik.

**73 GASTEIZKO UDALAREN EUSKARA ZERBITZUAK BERARIAZKO PROGRAMA BAT DU MERKATARITZA ETA OSTALARITZA ESTABLEZIMENDUETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ZER ESKAINTZEN DU PROGRAMA HORREK?**

- 73a) Aholkularitza.
- 73b) Aholkularitza eta prestakuntza.
- 73c) Aholkularitza, prestakuntza eta diru-laguntzak.
- 73d) Aholkularitza, prestakuntza eta diru-laguntzak, bai eta doako itzulpen-zerbitzuak eta gaikako hiztegiak ere.

**74**

**HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA HERRI-ADMINISTRAZIOETAN: 86/1997 DEKRETUAK BERE ERAGINPEKO EAEKO HERRI ERAKUNDE GUZTIETAKO EBALUAZIO OROKORRA EGITEKO EGIN BEHARRA ESLEITU ZION HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZARI. GAINERA, HERRI-ERAKUNDE BAKOITZAK BERE EBALUAZIOA ERE EGIN BEHAR DU. EBALUAZIO HORI EGITEKO HAINBAT DOKUMENTU ERABILI DIRA. HAUETAKO ZEIN EZ DA ERABILI?:**

- 74a) Erakundeen auto-diagnostikorako jarraibideak.
- 74b) Galdetegia herritarrak (erakundeko erabiltzaileak egitekoa).
- 74c) Galdetegia erakundeak (erakundeko solaskideak egitekoa).
- 74d) Galdetegia langileak (erakundeko langileak egitekoa).

**75 EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP) EUSKO JAURLARITZAREN ERABILERA PLANEN MARKOA IZAN DA. ESEP-EN HERRI-ADMINISTRAZIOEI DAGOKIEN ATALEAN JASOTAKO HELBURUA LORTZEKO HIRU NEURRI ETA EKINTZA PROPOSATZEN DIRA. HAUETAKO ZEIN EZ DA PROPOSATU?:**

- 75a) Herri-administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzea.
- 75b) Euskara ere lan-hizkuntza izateko neurriak hartzea.
- 75c) Itzulpen-kopuruak gora egitea.
- 75d) Langileen euskara-gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartzea.



- 76 EUSKO JAURLARITZAREN VI. PLANGINTZALDIAREN (2018-2022) OINARRIAK HONAKO HAUEK DIRA:**
- 76a) Plangintzaldiaren aurrekariak.
  - 76b) Kudeaketa Aurreratuaren irizpideak.
  - 76c) Etorkizunerako erronkak.
  - 76d) Plangintzaldiaren aurrekariak, Kudeaketa Aurreratu, Bikain ziurtagiria eta koordinazioaren garrantzia.
- 77 IVAP-EK ESKAINTZEN DUEN BERARIAZKO HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA, NORI ZUZENTZEN ZAIO?**
- 77a) Administrazioiko langileei eta herritarrei zuzenduta dago, eguneroko lanean dituzten hizkuntza eragozpenak gainditzeko laguntzeko.
  - 77b) Herritar guztiei zuzenduta dago, euskara erabiltzean dituzten hizkuntza eragozpenak gainditzeko laguntzeko.
  - 77c) Administrazioiko langileei zuzenduta dago, eguneroko lanean dituzten hizkuntza eragozpenak gainditzeko laguntzeko.
  - 77d) Eskatzen duen edonori.
- 78 SOZIOLOGIA ESKULIBURUAREN ARABERA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA PLANGINTZA AZTERTU ETA LANTZEAREN INGURUKO JOEREN EKARRIAK HIZKUNTZA POLITIKA ARRAKASTATSUA IZAN DEZAN...**
- 78a) Hizkuntza-plangintza (*language planning*) ardatz duen eredu teknokratikoa gailendu behar zaio partaidetzazko ereduari.
  - 78b) Partaidetzazko eredu nagusitu behar zaio eredu teknokratikoari.
  - 78c) Bi eredu arteko oreka lortzea ezinbestekoa da.
  - 78d) Gomendagarria da bi eredu horiei Einar Haugen-en eredu gaineratzea.
- 79 SOZIOLOGIA ESKULIBURUAREN ARABERA, HELBURUEN ARABERAKO HIZKUNTZA POLITIKAK DIRELA ETA (LARREA & BILBAO, 2010),...**
- 79a) Hizkuntza-politikatzat ez da hartu behar soilik esplizitua, idatzizkoa.
  - 79b) Hizkuntza-politika agerikoa da, eta ezkutuan geratzen diren hizkuntzari buruzko ideia kulturalak ez dira kontuan behar.
  - 79c) Hizkuntza-politikan ez da komeni inplizitua aintzat hartzea, emaitza desbideratu dezakeelako.
  - 79d) Hizkuntza-politikaren muina izan behar du hiztunen ideia, balio eta gainerako kultura-ezagutzak.
- 80 SOZIOLOGIA ESKULIBURUAREN ARABERA, HIZKUNTZA POLITIKA BATEKO ERAGILEEN BITARTEKOEI AHALIK ETA ETEKINIK HANDIENA ATERATZEKO KONTUAN HARTU BEHAR DIREN PRINTZPIOAK ZEHAZTU DITU J. C. CORBEIL-EK (1983). HAUETAKO ZEIN EZ DA ZERRENDA HORRETAKOA?**
- 80a) Konbergentzia.
  - 80b) Dominantzia.
  - 80c) Lurraldetasuna.
  - 80d) Inertzia soziala.

- 81 SOZIOLOGIA ESKULIBURUAREN ARABERA, SÁNCHEZ CARRIÓN 'TXEPETX'EK A ETA B IBILBIDEAK BEREIZTEN DITU HIZKUNTZAREN IKASKUNTZAN. HORREN ARABERA, ZEIN MULTZO DAGOKIE HIZTUN HELDU BERTAKOTUEI?**
- 81a) A  
81b) B  
81c) AB  
81d) BA
- 82 SOZIOLOGIA ESKULIBURUAREN ARABERA, HIZKUNTZAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA EGITEKO FISHMANEK (1991) SORTUTAKO ESKALAN FUNTSEZKO AGERTZEN DIRA ARNASGUNEAK HIZKUNTZA BATEN BIZIURAUPENERAKO. ZEIN MAILATAN?**
- 82a) 8. mailan  
82b) 7. mailan  
82c) 6. mailan  
82d) 5. mailan
- 83 GASTEIZKO UDALAK V. PLANGINTZALDIAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANEAN JASOAK DITU LEHENTASUNEZKO ATAL ELEBIDUNAK ETA MIKROPLANAK**
- 83a) Atal elebidunak bost haur eskoletara eta gizarte etheen zerbitzura mugatuko dira; mikroplanak gehiago.  
83b) Hamairu atal elebidun izango dira, baita haur eskolak ere; mikroplanak gehiago.  
83c) Hamairu atal elebidun izango dira, baita haur eskolak ere; mikroplanak gutxiago.  
83d) Mikroplanak hogeita sei ataletan izango dira, zerbitzu bitan eta erakunde autonomo batean; atal elebidunak gehiago, haur eskolak barne.
- 84 GASTEIZKO UDALAK V. PLANGINTZALDIAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANARI JARRAIKIZ, ZEIN HIZKUNTZATAN IZANGO DIRA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAK UDALAK JASO ETA IDATZI BEHAR DITUENEAN?**
- 84a) Testu gehienak gaztelaniaz sortu arren, euskarara itzuliko dira itzulpen-zerbitzuen bermearekin.  
84b) Euskara hutsean sortuko dira testu guztiak, langileak hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duenean.  
84c) Agiriak euskaraz eta gaztelaniaz sortuko dira, itzulpen-zerbitzuetara sistematikoki jo gabe.  
84d) Euskaraz jasotako idazkiari euskara hutsez erantzungo zaio beti, eta gaztelaniaz hartutakoari gaztelaniaz soilik kasu guztietan.
- 85 EUSKARA BIZIBERRITZEKO GASTEIZKO UDALAREN (2013-2017) PLAN NAGUSIKO ERRONKETAN...**
- 85a) Familia bidezko transmisioa da kezka eta ardura nagusia.  
85b) Eskolaren lana garrantzi handikoa izanik ere, zentralitatea galdu behar du datozen urteetan.  
85c) Euskararen erabilerak izan behar du gero eta garrantzi handiagoa, kezka nagusia izan dadin.  
85d) Aisialdiak eta kirolak erabateko garrantzia hartu behar dute, harik eta ardatz nagusietako bat bihurtu arte.

**86 ALDAHITZ IKERKETAKO EUSLE METODOLOGIA ESPERIENTZIEN EMAITZEK ERAKUSTEN DUTE ...**

- 86a) Metodologia horrek baduela ahalmen nabarmena lan-esparruan hizkuntza-ohiturak aldatzeko.
- 86b) Metodologia hau edozein langile-taldetan aplikatu edo garatu daitekeela arrakastaz.
- 86c) Metodologian ezinbestekoa dela esperientzia hauen aplikazio-aldia bi hilabetez gorakoa izatea.
- 86d) Esperientzia laburrak eta dinamika sinplean oinarrituak izateak mugatzen duela metodologiaren garapena.

**87 HAUETATIK ZEIN EZ DA EUSKARALDIAREN HELBURUETAN BETE-BETEAN SARTZEN?**

- 87a) Bi urterik behin euskararen aldeko jaia ospatzea
- 87b) Hitzunen hizkuntza-ohituretan eragitea, euskarazko hizkuntza-praktikak hedatzeko.
- 87c) Gizartean eragina duten era guztietako entitateek hizkuntza-ohituren aldaketan babes-neurriak hartzea.
- 87d) Herriz herriko euskaltzaleen artikulazioa bultzatzea

**88 EUSKARA BIZIBERRITZEKO GASTEIZKO UDALAREN (2013-2017) PLAN NAGUSIKO HELBURUAK DIRELA ETA, ...**

- 88a) Egun Gasteizko biztanleen %22,5 euskaldun izanik, aski da hizkuntzaren erabileran erabateko jauzia egiteko epe laburrean.
- 88b) Hitzun gaituen kopurua %40-50era hurbildu ahala, euskararen erabileran jauzi berri ohargarriak egiteko modua izango da Gasteizen.
- 88c) Gasteizen euskararen ezagutza unibertsaletik oraindik urrun egonik ere, hitzun pasiboek bermatuko dute euskararen erabilera.
- 88d) Gasteizen hitzun gaituen kopurua biztanleen erditik gertu dagoenez jadanik, hur-hurrekoa da euskararen erabileraren hazkundea.

**89 EUSKARA BIZIBERRITZEKO GASTEIZKO UDALAREN (2013-2017) PLAN NAGUSIKO LAN-ILDO ETA EKINTZETAN, IRAKASKUNTZARI DAGOKIONEZ, ...**

- 89a) Arrue ikerketak azaldu duenez, eskolaz kanpoko egitasmoak giltzarri dira euskararen erabilera sustatzeko, eta “laissez faire” politika aplikatu behar du Udalak.
- 89b) Eskola barruko jarduna funtsezkoa da ikastetxeetan euskararen erabilera sustatzeko, eta esparru horretan Udalak ez du eskumenik.
- 89c) Ikastetxeen jarduna lagundu behar du Udalak, eta bi tresna nagusi ditu horretarako: hezkuntza-programen katalogoa eta dirulaguntza-deialdia.
- 89d) Ikastetxeek egiten duten lanaren eta gizartearen arteko zubigintaz egin behar du Udalak, baina tamalez ekarpen txikia egin dezake, dirulaguntza-deialdiez gainera.

**90 ERALAN IKERKETA: LIDERGOA AZTERGAI PROIEKTUAN ZER ARRAZOI DAGO BERRIKUNTZA EGITEKO HIZKUNTZA NORMALIZAZIOAN?**

- 90a) Produktua bultzatu nahi da, hau da, lidergotzaren lanketaren bitartez euskara planen eraginkortasuna hobetu.
- 90b) Prozesua da bultzatu behar dena, hau da, izaera ezberdina duten eragileen arteko auzolana.
- 90c) Produktua eta prozesua dira berrikuntzarako arrazoi nagusi, baina produktua da berritzaileagoa.
- 90d) Produktua eta prozesua dira berrikuntzarako arrazoi nagusi, baina prozesua da berritzaileagoa.

**91 EUSKARAREN GAINEKO OINARRIZKO DISKURTSOA (EGOD) EGITASMOAREN EMAITZEK ERAKUSTEN DUTE ZORU DISKURTSIBO PARTEKATUA DAGOELA ETA GIZARTEAREN GEHIENGO ZABAL-ZABALAK PRINTZIPIO HAUEK BABESTEN DITUELA:**

- 91a) Elkarren arteko errespetua, euskararen balio pragmatikoa eta euskararen aldeko jarrerak.
- 91b) Elkarren arteko errespetua eta euskararen aldeko jarrerak.
- 91c) Elkarren arteko errespetua eta euskararen balio pragmatikoa.
- 91d) Elkarren arteko errespetua, euskararen aldeko jarrerak eta euskararekiko diskurtso aldarrikatzailea.

**92 EUSKARAREN GAINEKO OINARRIZKO DISKURTSOA (EGOD) EGITASMOA GAUZATZEKO METODOLOGIAN ZER LANKETA MOTA ERABILI DA, AZTERKETA BIBLIOGRAFIKOAZ GAINERA?**

- 92a) Metodologia kuantitatibo hutsa, galderasorta egituratu baten bitartez.
- 92b) Metodologia kualitatibo soila: gizarte foroa, Gizarte Foroa eta eztabaida-taldeak (*focus group*).
- 92c) Metodologia kuantitatibo eta kualitatiboak uztartu dira: *Delphi* teknika, *focus group* eta inkesta.
- 92d) Gizarte Foroa, *Delphi* teknika, *focus group* eta inkesta.

**93 ERALAN IKERKETA: LIDERGOA AZTERGAI PROIEKTUAN ZER EZAUGARRI NAGUSI DITU LIDER ERALDATZAILEAREN PORTAERAK?**

- 93a) Nagusiki, kontsiderazio indibiduala eta estimulazio intelektuala.
- 93b) Oroz gain, estimulazio intelektuala.
- 93c) Kontsiderazio indibiduala, estimulazio intelektuala eta motibazio inspiratzailea.
- 93d) Kontsiderazio indibiduala, estimulazio intelektuala eta motibazio inspiratzaileari eragin idealizatua gehituta.

**94 EUSKARAREN HIZTUN BERRIEN INGURUKO IKERKETA BATEK (ORTEGA ETA BESTE 2016) ERAKUTSI DUenez, EAE-KO 18-55 URTEKO HIZTUN BERRI ASKOK ZAILTASUN HANDIAK DITUZTE EUSKARA MODU AKTIBOAN ERABILTZEKO. ERABILERA OZTOPATZEN DUTEN GAKOEN ARTEAN, ZEIN DA HAUETATIK ERAGIN GUTXIEN DUENA?**

- 94a) Hizkuntza-ohitura aldatzeko zailtasunak.
- 94b) Euskara familia bidez jaso ez izana.
- 94c) Euskara erabiltzeko aukera murriztuak.
- 94d) Norberaren hizkuntza-gaitasunaren nolakotasuna.

**95 ZEIN DA EZINBESTEKO GAKOA HIZTUN AKTIBO BIHURTZEKO MUDA EGITEKO, “EUSKARAREN HIZTUN AKTIBO BIHURTZEKO GAKOAK” ARTIKULUAREN EGILEEK DIOTENEZ?**

- 95a) Euskararen ahozko erregistro kolokialak egoki erabiltzea.
- 95b) Euskararen balio pragmatikoaz ondo jabetuta egotea.
- 95c) Hitzunak euskararekiko kontzientzia eta jarrera proaktiboa izatea.
- 95d) Hitzunak bere ingurunean baldintza mesedegarriak izatea.

**96 IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA SOZIOLINGUISTAREN PROPOSAMENEAN, ZEIN DA EUSKARAREN FRAMING BERRIA ERDIESTEKO AURREKO FLUXUEN HURRENKERA?**

- 96a) *Agenda setting* berria euskal gizartean ezartzea, euskararen diskurtso berria komunikabideen agendan indartsu sartzeara eta *priminga* zabaltzea.
- 96b) Euskararen diskurtso berria komunikabideen agendan indartsu sartzeara, *agenda setting* berria euskal gizartean ezartzea eta *priminga* zabaltzea.
- 96c) Euskararen diskurtso berria komunikabideen agendan indartsu sartzeara, *priminga* zabaltzea eta *agenda setting* berria euskal gizartean ezartzea.
- 96d) *Agenda setting* berria euskal gizartean ezartzea, *priminga* zabaltzea eta euskararen diskurtso berria komunikabideen agendan indartsu sartzeara.

**97 SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUAREN ARABERA, ZER DA BIZITZA-HISTORIA?**

- 97a) Metodo kualitatiboaren barruan toki garrantzitsua duen teknika da. Bizitza-historiarekin banakako esperientzia berezia ezagutzea bilatzen da, hau da, pertsona baten definizioa bizi izan duen egoera bati buruz, edota bere bizitza osoari buruz.
- 97b) Metodo kuantitatiboaren barruan toki garrantzitsua duen teknika da. Bizitza-historiarekin banakako esperientzia berezia ezagutzea bilatzen da, hau da, pertsona baten definizioa bizi izan duen egoera bati buruz, edota bere bizitza osoari buruz.
- 97c) Metodo kualitatiboaren barruan toki garrantzitsua duen teknika da. Bizitza-historiarekin talde handi baten esperientzia berezia ezagutzea bilatzen da, hau da, pertsona-multzoaren definizioa bizi izan duen egoera bati buruz, edota bere bizitza osoari buruz.
- 97d) Metodo kualitatiboaren barruan oso gutxi erabiltzen den teknika da. Bizitza-historiarekin banakako iritzia ezagutzea bilatzen da.

**98 LANHITZ DIRULAGUNTZA-DEIALDIAREN PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAK HONAKOAK DIRA:**

- 98a) Munduko pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak, baldin eta gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa badute eta indarreko legeriaren arabera eratuta badaude eta, edozein dela ere haien eraketa juridikoa, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten lantokien titularrak edo kudeatzaileak izan zein ez izan.
- 98b) Europar Batasuneko naziotasuna edo helbide soziala edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen edozein estatutakoa duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak, baldin eta gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa badute eta indarreko legeriaren arabera eratuta badaude eta, edozein dela ere haien eraketa juridikoa, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten lantokien titularrak edo kudeatzaileak badira.
- 98c) Europar Batasuneko naziotasuna edo helbide soziala edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen edozein estatutakoa duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu eta publiko guztiak.
- 98d) Europar Batasuneko naziotasuna edo helbide soziala edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duen edozein estatutakoa duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak, baldin eta gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa badute eta indarreko legeriaren arabera eratuta badaude eta, edozein dela ere haien eraketa juridikoa, kontuan hartu gabe Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten lantokien titularrak edo kudeatzaileak diren ala ez.

**99 HIZKUNTZA-ERABILERA BEHAKETA BIDEZ NEURTZEKO GIDA METODOLOGIKOAREN ARABERA, ZER DA BEHAKETA BIDEZKO ERABILERA-NEURKETA?**

- 99a) Praxi soziala kualitatiboki aztertzeo teknika bat da. Bere helburua praktikan hizkuntza bakoitza erabiltzearen ekintzak zenbateko maiztasun erreala duen kontrolatzea da.
- 99b) Praxi soziala kuantitatiboki aztertzeo teknika bat da. Bere helburua praktikan hizkuntza bakoitza zenbateraino ezagutzen den kontrolatzea da.
- 99c) Praxi soziala kuantitatiboki aztertzeo teknika bat da. Bere helburua praktikan hizkuntza bakoitza erabiltzearen ekintzak zenbateko maiztasun erreala duen kontrolatzea da.
- 99d) Praxi soziala kuantitatiboki aztertzeo teknika bat da. Bere helburua hizkuntza baten hiztunak zenbat diren kontrolatzea da.

**100 EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEI BURUZKO 2/2016 LEGEAK EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO, PLANIFIKATZEKO ETA DINAMIZATZEKO ESKUMENAK AITORTZEN DIZKIE UDALEI. ZEIN EGOERATAN?**

- 100a) Herritarrak udalarekin zein hizkuntzatan aritu nahi duten jasotzen duen erregistroa kudeatzen duten udalei.
- 100b) Lanpostu guztiak euskararen erabilera sustatzeko bertako planean sartuta dituzten udalei.
- 100c) Udalerria zonalde euskaldunean dagoenean.
- 100d) Beti.